

## DIRU ITURRIAK

Gure proiektuaren diru sarrera nagusia gure zerbitzua kontratatu duten eskola publiko zein pribatuak eta udalak guk egindako proiektuarengatik ordaindu behar dutena da. Ordainketa hau errepikaria izango da, hau da, bezeroek hileroko diru kopuru bat ordainduko dute guk eskainitako eremu naturalak erabil ahal izateko.

Enpresaren partaide bakoitzak inbertsiorako diru kopuru berbera ipiniko du, soldata kopuru berdina jasoko dugu finantzazioaren aldetik hasieran diru laguntza eskatuko genuke gure proiektua udal ezberdinetan aurkeztuz, finantzaziorik lortu ezean kreditu bat eskatuko genuke.

Gure proiektuaren hasierako diru sarrerak :

Udalaren subentzio bat jasoko dugu, aurkeztutako proiektuari hasiera emateko, subentzio hau 10.000€koa izango da , halaber aurreztuta daukagun dirua erabiliko dugu, 5.000€ konkretuki. Enpresako bazkide bakoitzak 1000€ jarriko ditu, denetara 4.000€.  
Bankuari 8.000€ko kreditua eskatuko diogu.  
Beraz gure diru sarrera 27.000€koa izango da.